

begirada

86

azaroa
2022



Photo by Orlando Imperatore, used under CC BY-NC-SA 2.0 / Cropped from original

Lege-gordailua BI-1163-05

ikus
pegi

Immigrazioaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de Inmigración



NAZIONALIZAZIO- PROZESUAREN BILAKAERA EAE-N

Begirada honetan atzerritar jatorriko pertsonen nazionalizazio-prozesuan ardaztu gara, eta 2018ko azaroan argitaratutako 71. Begiradako datuak eguneratu ditugu.

Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioak argitaratutako azken datuen arabera, nazionalizazio-prozesuak izapide nagusia izaten jarraitzen du migratzaileentzat, eta dagoeneko 66.491 lagun inguruk lortu dute espainiar nazionalitatea EAEn 2003. urteaz geroztik.

A begi-nazionalitatea eskuratzea funtsezko gaietako bat da atzerritar jatorriko pertsonen gizarteratze-prozesuan. Izapide horri esker, atzerritar izatetik eskubide osoko herritar izatera igarotzen dira, eta horrek, lege-estatusa eskuratzearekin batera, integrazio sozialerako eta ekonomikorako aukera hobekak eskaintzen dizkie. Fenomeno hori gero eta esanguratsuagoa da; izan ere, urtetik urtera gehiago dira nazionalizazio-prozesuarekin bat egiten duten pertsonak.

Nazionalizazioek erreferentzia egiten diete Justizia Ministerioak erregistratutako aldeko ebazpenei, eta beharrezkoa da hainbat baldintza betetzea, hala nola tasak ordaintzea edo Espainian bizi izatea modu legal eta jarraituan eta eskaera egin aurreko hamar, bost, bi edo urtebeteko aldian, egoeraren arabera¹:

Arau orokorra	10 urte
Errefuxiatu-egoera duten pertsonak	5 urte
Latinoamerikako gehien-gehienak, Andorra, Filipinak, Ekuatore Ginea, Portugal edo sefardien komunitateko pertsonak	2 urte
Atzerrian jaiotako pertsonak, jatorriz espainiarrak izan diren pertsonen ondorengoak	urte 1

¹ Nahiz eta egonaldiaren arabera herritartasuna espainiar nazionalitatea eskuratzeko modu nagusietako bat izan den, badira agiri hori eskuratzeko beste modu batzuk ere. Hori horrela, atzerritar jatorriko pertsonak ezkontzagaritako espainiar nazionalitatea eskuratu dezakete legezko urtebeteko egonaldiaren ostean espainiar batekin ezkontzean. Adingabekoan kasuan, gurasoetako batek espainiar nazionalitatea berriki eskuratu badu, "aukera bidezko" nazionalitate delakoaren bitartez ere eskuratu dezakete.

Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioak argitaratutako azken datuen arabera, 2021eko urtarrilaren 1a eta abenduaren 31 artean atzerritar jatorriko 8.800 lagunek eskuratu zuten espainiar nazionalitatea Euskal Autonomia Erkidegoan —aurrerantzean EAE—. Hori horrela, 2003az geroztik gaur egun arte, atzerrian jaiotako 66.491 pertsonak lortu dute nazionalitatea erkidegoan.


1. grafikoan ikus daitekeen moduan, prozesua ez da uniformea izan, baizik eta hainbat fasetatik eta unetatik igaro da; alde batetik, berezko migrazio-fluxuak eta, bestetik, nazionalitatea eskuratzeko administrazioak finkatutako baldintzak. Ildo horretatik, 2003. eta 2013. urteen artean emandako nazionalitateen kopuruak gora egin zuen, 2010. eta 2013. urteen artean bereziki, izapideak arintzearen ondorioz.

2014. eta 2017. urteen artean, nazionalizazio-kopuruak nabarmen egin zuen behera. Hori ulertzeko atzeraldi ekonomikoaren testuinguruari erreparatu behar diogu, erkidegora iristen zen pertsona-kopuruaren beherakada eragin baitzuen. Hala ere, 2013an gertatutako nazionalizazio-prozesuaren behin-behineko desblokeatzeak ere eragina izan zuen, urtebetean 9.004 nazionalizazio gertatu baitziren, nazionalizazioen emakida arintzearen ondorioz, izapidetzeetan atzerapen handiak jazotzen ari ziren testuinguruan.

Kopuru horrek berriro ere aldaketak izan ditu oraintsu. Erkidegora datozen fluxuen berraktibazioarekin batera nazionalitatea eskuratu nahi zuen pertsona-kopuruak gora egin zuen berriro, eta 2020an behera egin zuen beste behin. Urtebete geroago, 2021ean, kopuruak gora egin zuen berriro ere 8.800 pertsona arte, serie historiko guztiko bigarren zifrarik altueneraino.

1. grafikoa

Nazionalizazioen bilakaera EAEn (absolutuak), 2003-2021



Iturria: geuk egina, Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioak emandako datuak oinarri hartuta.

2. grafikoa

Nazionalizazioen banaketa lurralde historikoaren arabera (absolutuak), 2021



Iturria: geuk egina, Inklusio, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioak emandako datuak oinarri hartuta.


Lurralde historikoen arabera nazionalizazio horien banaketari dagokionez —2. grafikoa—, Bizkaia jaso du kopururik handiena, 3.807 pertsona inguru nazionalizatuta, guztizkoaren % 43,3. Joera iraunarazten da horrela, EAEn egindako migrazio-mugimenduen hasieratik Bizkaia izan baita urtez urte nazionalizazio gehien erregistratu duen lurraldea. Horren atzetik, bigarren postuan, Gipuzkoak izan ditu nazionalizazio gehien (3.002) eta, azkenik, Arabak (1.991).

Nazionalitateei dagokienez —3. grafikoa—, 2021ean zehar erregistratutako nazionalizazioen erdia latinoamerikar jatorrikoek dagokie (% 48,1). Hori ulertzeko kontuan izan behar dugu sarreran aipatzen genuen nazionalizazio-prozesu nabarmen arinagoa, bi urteko egonaldia soilik izatea legezko administrazio-egoeran. Latinoamerikarren atzetik, gehienbat afrikar (% 38,3) jatorrikoek eskuratu dute espainiar nazionalitatea.

Lurralde historikoen arabera, Araba nabarmentzen da afrikar jatorriko pertsonen nazionalizazio portzentaje nabarmen handiagoa izateagatik, batez besteko orokorra alderantzikatuz —% 54,8 afrikar jatorrikoa—, zeren Arabak baitu beste bi lurraldeek baino afrikar jatorriko biztanleria portzentaje handiagoa. Bai Bizkaiaren kasuan, bai Gipuzkoaren kasuan, jatorri nagusia Latinoamerika da (% 56,2 eta % 51,0, hurrenez hurren).

3. grafikoa

Nazionalizazioak EAEn eta lurralde historikoetan jatorriaren arabera (%), 2021




Iturria: geuk egina, Inklusio, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioak emandako datuak oinarri hartuta.

Nazionalizazio-prozesuaren eta jatorrien bilakaeraren harira —4. grafikoa—, 2004. urteaz geroztik gaur egun arte Latinoamerika izan da jatorri nagusia. Hala ere, jatorri hori pisua galtzen joan da aipatutako eskubidea lortzen duten afrikar jatorriko pertsonen kopuruak gora egin duen heinean.

Joera-aldaketa hori nazionalizazio-politiken ondorio da, horiek adierazten baitute —dagoeneko sarreran eta aurreko grafikoan ikusi dugun moduan— zenbat denbora itxaron behar duen legezko administrazio-egoeran dagoen pertsona batek nazionalitatea eskatu ahal izateko. Hortaz, 2001. eta 2009. urteen artean erkidegoan bizi zen afrikar jatorriko pertsona-kopurua hirukoiztu bazen ere², hona heldutako lehen afrikarrek ezin izan zuten espainiar nazionalitatea eskuratu 2010. urte hasierara arte, itxaron beharreko epea dela eta. Une horretatik aurrera nabarmen egin zuen gora nazionalizazio-prozesuan sartutako afrikar jatorriko pertsona kopuruak.

4. grafikoa

Nazionalizazioen bilakaera urtez urte EAEn, jatorriaren arabera (%), 2004–2021



Iturria: geuk egina, Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioak emandako datuak oinarri hartuta.

² EAEn afrikar jatorriko biztanleriari buruzko 77. Begirada: <https://www.ikuspegi.eus/documentos/panoramicas/pan77eus.pdf>

Jatorrizko herrialdeen arabera —1. taula—, azken urtean nazionalitatea eskuratu dutenen gehiengoa herrialde hauetatik etorritakoa izan da: Maroko (% 20,8), Nikaragua (% 9,2), Nigeria (% 6,9), Bolivia (% 6,7) eta Kolonbia (% 5,6). Zerrenda apur bat zabaltzen badugu, ikusiko dugu nazionalizazio gehien dituzten hamar jatorritatik sei latinoamerikarrak direla, hiru afrikarrak eta bat asiarra.

Generoari dagokionez, 2021eko urtarrila eta abendua bitartean nazionalitatea eskuratu zuten 8.800 lagunetatik ia erdia baino gehiago (% 56,6) emakumezkoak izan ziren, 4.985 alegia. EAerako migrazio-fluxuekin lotuta dago hori; izan ere, atzerritar jatorriko biztanleria arinki feminizatutako kolektiboa da. Dena den, esan beharra dago joera orokor hori aldatu egiten dela jatorriaren arabera. Ildo horretatik, jatorri latinoamerikar nagusien artean nazionalitatea eskuratu zutenen gehiengoa emakumezkoa izan zen; aldiz, zenbait jatorri afrikarrek eta asiarrek maskulinizazio-maila handia agertzen dute, Pakistanek (% 31,4), Aljeriak (% 38,3) edo Marokok (% 42,3) esaterako.

1. taula

Nazionalizatutako jatorrizko hamar herrialde nagusiak (absolutuak eta %), 2021

		Gutzikoa	Gutzikoaren %	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Emakumezkoen %
1	Maroko	1.834	20,8	1.059	775	42,3
2	Nikaragua	806	9,2	97	709	88,0
3	Nigeria	603	6,9	299	304	50,4
4	Bolivia	591	6,7	198	393	66,5
5	Kolonbia	495	5,6	198	297	60,0
6	Honduras	415	4,7	90	325	78,3
7	Pakistan	338	3,8	232	106	31,4
8	Paraguai	335	3,8	49	286	85,4
9	Aljeria	321	3,6	198	123	38,3
10	Brasil	256	2,9	83	173	67,6
	Gainerakoak	2.806	32	1.312	1.494	53,2
	Guztira	8.800	100,0	3.815	4.985	56,6

Iturria: geuk egina, Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioak emandako datuak oinarri hartuta.


Nazionalitatea eskuratzeko bitartekoei erreparatuz orain —5. grafikoa—, azken urtean espainiar nazionalitatea eskuratu dutenen % 40,3k bi urteko legezko egonaldiaren bitartez lortu du, horren atzetik Espainian jaiotakoak daude (% 26,3), gero hamar urteko egonaldia bete dutenak (% 21,8) eta, azkenik, espainiar batekin ezkontutakoak (% 9,3). Datu horiek aldaketa erakusten dute aurreko Begiradan aurkeztu genituenekin alderatuta. Hain zuzen ere, orduz geroztik, indarra hartu dute jaiotzagatiko (+% 15,4), hamar urteko egonaldiagatiko (+% 2,8), zein ezkontzagatiko (+% 2,5) nazionalizazioek.

Lurralde historikoen arabera, Bizkaia da bi urteko egonaldiagatiko nazionalizazio gehien dituen lurraldea (% 47,2); Araba, berriz, hamar urteko egonaldiagatiko (% 28,6) eta jaiotzagatiko (% 37,6) nazionalizazioen portzentaje handienak biltzen dituelako nagusitzen da. Berrito ere, hori lotuta dago lurralde batek zein besteak jaso dituen migrazio-fluxuen aldeekin.

Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioak emandako datuei esker azpimarratu dezakegu atzeritar jatorriko pertsonen seme-alabek gero eta pisu handiagoa dutela.

5. grafikoa

EAEn eta lurralde historikoetan nazionalizatzeko bitarteko nagusiak (%), 2021



Iturria: geuk egina, Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioak emandako datuak oinarri hartuta.


Bilakaeraren ikuspegitik, bi urteko legezko egoitza izan da historikoki nazionalitatea eskuratzeko bitarteko nagusia —6. grafikoa—. Bitarteko horretatik haratago, mende honetako lehen urteetan ezkontzagaritako nazionalizazioek pisu esanguratsua izan zuten; hala, 2004an nazionalitatea eskuratu zutenen laurdenak baino gehiagok ezkontza bitartez egin zuen (% 26,1).

Urte batzuetatik hona, pisua lortu dute hamar urteko egonaldia izateagatik, nahiz Espainian jaioa izateagatik lortutako nazionalizazioek; bien artean nazionalizazio guztien % 48,1era iritsi ziren 2021ean. Ikusi ahal izan dugun moduan, bi kasuetan EAerako migrazio-fluxuen finkapenaren ondorio izan da hori. Alde batetik, afrikar jatorriko pertsonak —Magrebetik etorritakoak nagusiki— egonaldiagaritako nazionalizazioa eskuratzen dute eta, bestetik, bigarren belaunaldiek pisua hartzen dute.

Azken kasu horretan, azpimarratu beharra dago jaiotzagaritako nazionalitatea ematen dela haurraren gurasoetako batek espainiar nazionalitatea duenean, juridikoki *ius sanguinis* —odolezko eskubidea latinez— gisa ezagutzen dena. Aparteko zenbait kasutan, eta haurren interesak babeste aldera, atzeritarren seme-alabek nazionalitatea eskuratu dezakete, gurasoek eduki ez arren, horiek aberriabeak direnean edo jatorrizko herrialdeko legediak nazionalitaterik egotzen ez dionean jaioberriari —eta, beraz, haurra aberriabe bilakatzeko arriskuan egongo balitz—, esate baterako.

6. grafikoa

Nazionalizazioen bilakaera EAEn, bitartekoaren arabera (%), 2004-2021



Iturria: geuk egina, Inklusio, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioak emandako datuak oinarri hartuta.

Espainiako nazionalitatearen emakida-datuetatik haratago, interesgarria da, halaber, kolektibo osoaren barruan nazionalizatutako atzerritar jatorriko pertsonen bolumenak zer bilakaera izan duen egiaztatzea. 7. grafikoa, EAEn 2003 eta 2021 urteen artean errolatutako atzerritar jatorriko pertsonen datuak agertzen dira, bai eta horietatik Espainiako nazionalitatea zenbaterik zuten ere.

Ikus daitekeenez, 2021aren hasieran EAEn errolatuta zeuden 247.784 atzerritarretatik 82.984 inguruk lortu zuten nazionalitatea, hau da, migratutako pertsona guztien herenak (% 33,5).

Bilakaerari dagokionez, hasiera batean, EAEn iristen ziren pertsonak jatorrizko herrialdeetako nazionalitateari eusten zioten oraindik ere. Grafikoa ikus daitekeenez, atzerritarren kopuruaren hazkundeak moteldu egin bada ere, Espainiako nazionalitatea duten atzerrian jaiotako pertsonen kopurua pixkanaka hazten joan da. Joera hori gaur egun ere mantentzen da.

Jatorrizko eremuei dagokionez, eta begiradan zehar aurkeztutako datuen ildotik, erraztasun handiago horien ondorioz, Latinoamerikak du biztanleria nazionalizatu handiena. 2021eko urtarilaren 1ean, eskualde horretan jaiotako 54.187 pertsona inguruk lortu zuten Espainiako nazionalitatea, hau da, guztizkoaren % 42,0k. Latinoamerikaren atzetik, Europar Batasunetik kanpoko biztanleriak (% 31,0) eta Europar Batasunekoak (% 25,2) dute nazionalizazio-ehuneko handiena. Jatorri afrikarreko eta asiarreko biztanleen kasuan, nazionalizatutako pertsonen tasa baxuena da, % 20 eta % 18, hurrenez hurren.

2. taula


Atzerrian jaiotako pertsonak, nazionalitatearen eta jatorrizko eremuaren arabera (absolutuak eta %), 2021

	Atzerritar jatorria	Espainiako nazionalitatea	% Espainiako nazionalitatea
Europar Batasuna	36.741	9.242	25,2
Europako gainerakoak	11.482	3.563	31,0
Afrika	52.842	10.710	20,3
Latinoamerika	128.948	54.187	42,0
Asia	16.212	2.968	18,3

Iturria: geuk egina, EINen datuetan oinarrituta.

7. grafikoa

Atzerrian jaiotako biztanleriaren bilakaera, nazionalitatearen arabera, EAEn (absolutuak), 2003-2021



Iturria: geuk egina, EINen datuetan oinarrituta.

Laburbilduz

- 2021eko urtarrila eta abendua bitartean atzerritar jatorriko 8.800 lagunek eskuratu dute espainiar nazionalitatea. Hortaz, 2003az geroztik guztira 66.491 pertsonak eskuratu dute nazionalitatea EAEn. Lurralde historikoei dagokienez, nazionalizazioen gehiengoa Bizkaian gertatu da, ondoren Gipuzkoan eta, azkenik, Araban.
- 2021ean nazionalitatea eskuratu duten pertsona guztien % 48,1 latinoamerikar jatorrikoa izan da. Herrialdeka, Maroko (% 20,8), Nikaragua (% 9,2) eta Nigeria (% 6,9) izan dira izapide hori egitea gehien lortu duten jatorriak.
- Pertsona horien ezaugarri soziodemografikoei dagokienez, 2021ean nazionalitatea eskuratu zuten 8.800 lagunetatik gehiengoa, % 56,6, emakumezkoa izan zen. Hori aldatu egiten da jatorriaren arabera, hala nola gizezkoak gehiago dira afrikar eta asiar jatorriko zenbait herrialdetan, Pakistan (% 68,6), Aljeria (% 61,7) edo Marokoren kasuan (% 57,7), besteak beste.
- Migrazio-fluxuak finkatzearen eta eskakizun administratibo desberdinen ondorioz, urteen joanean aldatu egin da bai nazionalitatea eskuratzen dutenen jatorria, bai hura eskuratzeko baliatzen duten bitartekoa. 2004. eta 2008. urteen artean, nazionalitatea ezkontzari esker lortu zuten edo Latinoamerikako herrialderen batean jaiok ziren pertsonak nabarmendu ziren. Hala eta guztiz ere, 2013tik aurrera gora egin du jaiotzagatik edo legez hamar urtetik gorako egonaldia izateagatik nazionalitatea eskuratu dutenen kopuruak.
- 2021eko urtarrilaren 1ean, atzerritar jatorriko 82.984 pertsona inguruk zuten Espainiako nazionalitatea EAEn, guztizkoaren % 33,5ek. Jatorrizko eremuen arabera, Latinoamerikak zuten nazionalizatutako biztanleriaren ehuneko handiena, % 42,0.

EAE 2021	8.800 pertsona nazionalizatuta	Aurreko urtean baino ia 6.000 gehiago
---------------------	---	--

Jatorri nagusiak	
% 48,1% latinoamerikar jatorrikoa	Maroko, Nikaragua, Nigeria eta Bolivia

Nazionalizatze arrazoiak	
% 40,3 bi urteko egonaldia	Azken urteetan nazionalizazioen gorakada handia izan da hamar urteko egonaldiengatik eta bertan jaiotzeagatik